

ZARREN ESAKEKAK

Zarren bidez urrengorik urrengora lenagokoen gorabera asko eldu yakuz; euretarik asko gure aurreragokoak yazoriko gauzetzat esaten eudiezan. Guk eztoгу orrenbeste esango. Bakotxak bare eretxiti ataia bei non dan benetako yazoerea, ta non guzurrezkoa edo irudipenezkoa.

LAMIÑEK

Lanbreabe´ko lamiñek eta euren atzera-aurreak bala-bala ebildiezan zarrak euren agoetan. Lamiñok, geuk lez oiñ, beso ta ganetiko gorputzen sentzunek eukiarren, etxure bildurgarrizkoak ei-zirean; baye neu nago, guzti-guztiek bildurgarrizko motzak be etzireala izango. Ta ona zegaiti. Zarrak eurek esana da, lamiñe batek Lanbreabe´ko errotan ezkon-geye eukala. Au egie izatekotan, izelan ixen leiteke Lanbreabe´ko errotako iñok, alango motz eta bildurgarrizko bat ezkongieztat artu?

Lanbreabe´ko Zubietati Muñegirantza doyan errekan, ezker aldeati, Zubietati lasterrean, erreka-ertz-ertzean errenkadan dagozan atxbitarteak eta atx-zuloak lamiñek egiñek ei-dire, eta euriekaz da eguraldi txarrakaz euren barruen sartute egoten ei-zirean. Atx-zulo oneitati apur bet gorago, Lamiñe-posu deritxon lekue dago; eta onen aldamen bietan dagozan atx-ganeetan, eguzkie zanean, euren bearlekuetan agiri ei-zirean, uleak orraztuten, bogadea zabalduten, eta olango bearretan. Uleen ardura andie eukien, antza, ta atx-gane orreitan urrezko orrasiekaz uleak orraiztu ta uleak orraztu sarri ikusten ei-eudiezan, baits ixera zuri ederrak zabalduten be. Eguzki-sarraieran ainbeste ixera eder intxaur-azal baten aartuten ikustea ei-zen gauzerik ikusgarriena ta **arrit+Itekoena**. Atxinekoen bat, Barrenkaleko kalean amalau atzo tronpeta yoten motrelu baten ganean ikusi zituala-ta, guztiz arriturik gelditu ei-zan. Ba, zer eretxiko ete eutsan, ainbeste ixera, sorgin-ixerak ezpazirean, intxaur-azal baten sartuten ikusi balitu?

Sorgin ixerak be etzirean urrean; ze, Lanbreabe´ko andra batek ixera eder bat kendu ei-eutsien bein, ta andra orri baketan ez ei-eutsien isten, beti euren ixera orren eske ta eske Gabaz ateko giltze-zuloti, eta egunez solora agertuten zaneko, an ei-zirean sorgiñok ekin da ekin:

(Non dozu gure ixerea) ta non dozu gure ixerea, gau ta egun ixildu barik, ixera zorioneko on atzera emon arte.

Eriotzeak bildur andie emoten ei-eutsien, da Ipiñe´n baten bat ilten zanean, baterik bestera garrasike asten ei-zirean, ziñaudiela.

Lanbreabe´ko etzanderea, Ipiñeko min-dingilinek (kanpak) asi dire agertau egixu anda iserea. Oin irurogei urte edo bear bada geyorarte, ilek etzituezan atauteetan obiratuten; parroki bakotxak bere andak eukiten zituen eta eurotan eroaten eudiezan ilek guztiek obitegire. Ilen etzekoak isera eder bat zabaltzen eutsien ganean anda orrei, ta bere ganean itninten eudien ile; ta gorpue bein lurperatu orduen, auzoko andra batek batu ta biribiltzen oan isera on ta ilen etzera biurtuten oan. Isera onexeri esaten yakon anda-iserea. Ta orti dator laminek, baten bat ilten zaneko garrasike esaten eudien ori: (Lanbreabe´ko etzanderea, gertau anda-iserea).

Laminok guztiz ezne-zaleak be ba-eizirean: goxean goxeti asten ei-zirean Lanbreabe´ko auzoan aterik ate ezne-eske, ta ezpanetara urre ratu orduko irunsten ei-eudien katillukadea.

Ixildu barik beti ezne-eske ebizela-ta, Lanbreabe´tarrok bete-beteen asperturik ei-eukiezan, eta zeozer asmau bear zala-ta ei-ebizen auzokoak, ezne zale gogaikarriok ateetati uxatuteko. Ta ona zelan etorri yakien orretarako argie: domeka baten bertako auntsdun bat, gexean goxeti bere auntszek mendire eroanda gero, ba-eyetorren etzerantza bizkor-bizkor, mezara orduko etzean goxari-iski bet artzeako asmoz; sartu da, eznea egozi dau ta belu egingo ete yakon ardurez zurrutada !miter iruntsi gure dau dana. Irikiten egoan eznea, ta apur bet agoan sartzean oaneko, ago guztie kiskeldu bear eutson ta ixerrak ikusiazoten eutsezan. Mutil aren estutasun eta larriek, mezarako belu egiten yakola-ta, zurrutada ezne ori artu eziñiki Orduentxe gomutaun yakon lamiñek be zurrutada baten botaten audiela katillukada eznea euren barrure ta, eureri esteak kiskelduteko eznea irikiten emotea ixengo litzekala onena.

Domeka atan berean, arrastien, auzoko etzeko andra guztiek bat einde aitu asmoa, laminek esne-eske etazanean, dana irikiten emoteko. Esan da egin. Astelen goxean, beti lez, goxeti asi ei-zirean lamiñok aterik ate ezne-eske. Etzeko andrak ordureko maskillukada ederrak ei-eukiezan laratzuetan irikiten. Lamiñek ezne-katilluek artu zituezan, katillu orrei ezpanak erakutsi orduko, euren urdalletan eukien ezne irikiie. Ta lan ei-zirean garrasiek! Ezne goriek barruek erreta mifien miñez, birrean sakea artute, goragoratan ei-ebizen buruekaz goiko ageak yoten eudiezala. Ta azkenez be, erdi illean arin bai arin euren atx-zuloetara ein ei-eudien ta bertan ondatu ei-zirean betiko. Arik geyo ez ei-deude urten, eta onan urrengorik urrengora ondatu ta egundo geyo ez ei-de ixen euren barririk.

Lamiñok onan ondatu zitu ez anean, errotako ezkontza on ein barik

gelditu bazan be, Lambreabe tarrok sekuleko bakea ta poza ixen ei-eudien, auzo ta inguruek be guztiz garbiturik gelditu zirealako.

Ezta ixen ordurik ona lamiñon barririk; bakarrik gelditu yakuz egoten ei-zirean atx-zuloak, eguzkie artzean egoten zirean atxak, eta buruz bera uretan mugilduten zirean pozu edo osiie.

BASAYAUNEK

Iñoz entzun ixengo zenduen basayaunen ixen au. Basayaunek zertzuk zirean yakiteko, ixen onek zer esan gure dauen gomutera ekartea baiio eztaukazue. Yaunek nagusie, uzaba edo agintarie esan gure date ta basayaunek basoan yaune clans edo aginpidea daukena.

Len agoko zarrak esaten eudienez, ikeragarrizko gorputze ei-eukien, yantzi urdiñek erabilten ei- eudiezan, eta euren artean ba eizirean banaken batzuk bekokiendien begi bakarra eukienak be. Euren yaun tasune, eguzkie sartute urrengo egune zabaldu artekoa ixeten ei-eudien. 1Bitarte orretan basoan aurkituten eudienaren errukiel Baso-lanetan ebizenak ardurez da bildurrez ibili hear eureka. Euren yauntasun -orduetan basoan aurkituten eudenari (gaur gaubean geugaz ixen beozu) , esaten ei-eutsien, eta geyo gixon orren barririk ez ei-zen yakiten.

Legoaldi'n asita Otzandagortararte guztien ei-eukien euren aginpidea; ta basorik ilunenetati ibilten ei-zirean geyen baten.

Gixon-okelea yanda bixi ete zirean esaten eudien lenagokoak; ba, armol-bitarteak guztiek gixa-azurrez beterik agertuten ei-zirean. Au gaiti lanean basora yoaten zireanak, eguzkie atzerantza itzulten zaneko, azkorea ta sakue bizkarrean artute, egun argiz artzen ei-eudien etzera bidea.

Orraitio, gaubetan .euren beartxoak eiten ba-eyekien, goldaketan ei-zirean mutilek. Mendi-ganetati bera datozen erreka-arroak euren gauetako goldaketa-aldietan eineko golda-zuloak ei-dire.

Atx-kastillo'ko arri nausien azpien eukiten ei-eudiezan euren batzarrak, eta batu be ainbet eiten ei-zirean baxotxean. Ubide'ko artzain batek goix baten Muzurutz'go atx-ganeti begitute, amabireiño ikusi ei-zituen Atx-kastillo'ko arripeti urten, Arraiñeta'ko zubie igaro ta Uguspe-larrati Otzandagortarantza erreskadan yoyazala.

Ipiñeburu'ko Artea-etzeko gixona eguneko lana amaitutearren illuntze baten berandurarte gelditu ei-zen basoan. Basayaun bi ba-yatorkoz, cgaur gaube geugaz egin bear dozu, dirautsiela. Ipiñeburu'tarrak: Bai, erantzun

eutsien, baye lelengo iruron artean auxe pago au erdibitu daigun). Ziegaz arrakal andie einde ei-euken pago ori, ta batak aide bateti eta besteak besteti arrakalean eskuek sartute inder eiteko esan ei-eutsien . Asi dire, ba, basayaunek olantxe inderka; gure gixonak barriz kendu deutso zie pagoari, ta ariakal ori berez estuturik basayaunok eskuek arrakalean katigitute eudiezala gelditu zirean. Gixonak orduen, basayaunok añ itxite, erbiek baiiio arinego, sekuleko aiñin ketadea ein ei-oan bare etxeko atea goatu arte.

Basayaunok zelan ondatu zireaneko barririk zarrak ezteuskue emon; baye eritxi baten, baso ilunek garbituteak basayaunen azkena ekarri oala esan geinke.

GERGORIO IPIZAR'KORI YAZORIKOAK

Gergorio Ipizar'ko, gixon zintzoa, auzorako baketsue, guraso ona, eten bako langillea, ele aratie eta bare ingurukoentzat yarraigarrie

Berberak berari yazorikotzat esaten ebazanen arteti iru bakarrik amen imiñiko doguz.Lau mille prakagorri.

Aldi beten etzagunek, auteskunde edo eleziioetan boto geyo eukitearren edo, lur gitxiegi eukiko euden ala ez begitu barik, alik eta errenterurik geyen eukitera eiten eudien. Au zala-ta, lurreti etzean bear eudien guztie ezin eudiela atara ta, etzeko bear-ixenak estalduteko, askok eukiten eudien auntz-taldetxoen bat edo.

Auntzek eznean ziranean, soloan bearrean aspertute, iluntze guztietan auntzek etzera ekarten yoaten zan Gergorio. Mayetzeko egun beten, etzean goitzoago urtenda, gorantza yoyala berantzean artzeako asm1z. Birduxine'n karga orri bet einde, ba-doa Belakondora auntzek ekarten. Bertara eldu zaneke trumoi ta oiiastarri bildurgarriek asi zirean, da auntzek ez euden urtcn gure armol-arteti. Gergorio etzan epe larrekoa onango orduetan; ernegazo eutsien auntzok, eta bere estukure ta asarrean, begiek gora yasota, esan ei-oan: iPremita Kitto? Prakagorri guztiek baletoz auntzok uxatuteko... Eta esanaz batera, Belaukondo guztie prakagorritz bete ei-zen. Ixengo ei-zirean lau mille inguru, euren zaldi ganeetan argi eiten eudiela lAlango zaldi ariiik eta ango erredure-otsa seguru be! Itzerik bigunenean be txatarrak ataraten ei-eudiezan. Berari buruko uleak be arteztu ta txapela gora goratan yagi ei-yakon, eta odolak ur biurtu ei-yakozan. Auntzik, barriz, kortararte ikusi be ez; bildurren bildurrez oñizitue lez kortaratu ei-zirean danak.

Yasoak yasota be, berantzean karga orrie leporatu ta etzeratu ei-oan,

orraitio. Baye zurbildurik eta odol barik eldu ei-zen; eta Barbara bere emazteak alan ikusi oanean, esan ei-otsan: " 4Baye, zer dozu, gixontxo, giza-itxurerik be eztozu?" Gergoriok ez eukan ezer erantzuteko adorerik, eta afaldu be ein barik, oian sartu ei-zen.

Arratia ´ko ipuiñak

Irakurlea: Josu Aginaga Gorospe - (Dima)